

1. Egur sortak eskatzeko epea zabalik dago

2018rako egur sortak nahi dituztenen kopurua ezagutzeko asmoagaz, apuntatzeko epea zabaldu da azaroaren 20 arte. Betiko egur sortak 200€ balioko ditu, eta apeatan eta etxean jarrita nahi izanez gero 690€.

2. Mekoletatik eta Antzuberako ibilbidea egokitu da

Gordobileku zubia enbalseko urak hartzean, PR-50 jarraitzeko alternatiba Mekoletatik Antzuberara joatea da. Urte hasieran egokitze lan batzuk egin ziren bertan, eta orain beste bi zubi egin dira zingirak zeharkatzeko.



3. Hezeguneak eraiki dira Presazelai inguruan

Otxandioko baso-igel mota bat berreskuratzeko hezegune ezberdinak sortu dira Presazelain, ura urte osoan dutenak eta urtaroaren arabera sikatzen direnak. Laster panel informatiboak ipiniko dira bertan informazio guztiarekin.

4. Auzokonpost berria jartzeko proposamena Mainerrotan

Etxebizitza Sozialetako auzokonpost gunea txiki geratu denez, Zero Zaborrek Kultur Etxe ondoko belargunean etxola berri bat jartzea proposatu du. Aurretik, bertako bizilagunen iritzia jasotzeko karta bat banatuko da.



5. Mañondoko frontoi azpiko lanak hastear

Herritarrek frontoi azpiko lokala auzolanean garbitu ondoren, hurrengo asteetan hormak bota eta obra-hondakinak ateratzeko lanak hasiko dira. Urte berriarekin batera, kirola egiteko gune berri honen eraikitze lanak hastea espero da.

AGENDA

Urriak 27 eta 28 / 19:00

Solasaldia: Erabakitze Eskubidea (Gure Esku Dago)

Urriak 28 / 09:30 / Plazan

Perretxiko bilketa (Mirugain eta Kementsu)

Urriak 29 / Eguerdian / Plazan

Perretxiko erakusketa (Mirugain eta Kementsu)

Azaroak 4 / 19:30 / Elizan

Otxandioko eta Tolosako txistularien kontzertua